

Bidasoa bizirik-ek emakumeen ekintzailletza sustatzearen alde egin du

·Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, dela eta, sei bideo egin dira eskualdeko emakume ekintzaileei elkarrizketak eginez.

·Bideoak sare sozialen eta www.bidasoa-activa.com webgunearen bidez zabalduko dira.

Irunen, 2022ko martxoaren 3an.- Irungo eta Hondarribiko udalek, Bidasoa bizirik-en bidez, sentsibilizazio-kanpaina bat egin dute martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, dela eta. Zehazki, sei bideo egin dira, eskualdeko emakume ekintzaileak elkarrizketatuz, emakumeen ekintzailletza ikusarazteko eta belaunaldi berrien eredu izan daitezen.

“Bidasoa bizirik urteak daramatza bere ekintzak, programak eta proiektuak genero-ikuspegia barne garatzen, lan-merkatuan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei aurre egiteko, eta genero-berdintasuna bultzatzeko. Lan-arloko desberdintasun horiek ezabatzeko lan egiteaz gain, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako politika ezarri zuen Agentziak, creando para ello la Comisión de Igualdad. Horretarako sortu zen Berdintasun Batzordea, Bidasoa bizirik-eko departamentoko ezberdinetako teknikari eta administrariak osatua, eta 2020ko irailean onartu zuen lehen Berdintasun Plana”, adierazi du Miguel Ángel Páez Bidasoa bizirik-eko lehendakariak.

Gainera, María Serrano Bidasoa bizirik-eko lehendakariordeak nabarmendu duenez, “Agentzian zeharkako programa eta proiektu horien koordinatzaile bat dugu. Bera arduratzen da, Berdintasun Batzordearekin batera, Berdintasun Planeko ekintzen jarraipen egokia bermatzeaz”.

Berdintasun Planaren barruan

Gaur aurkeztutako ekimena plan horren 5. ardatzean kokatzen da, hain zuzen ere, emakumeen ekimena ikusarazteko sentsibilizazio ekintzak garatzeko ardatza.

Testuinguru horretan garatu dira sei bideoak emakume ekintzaile hauekin: Raquel Benavente, Bidibi Badibi Bu ordezkari eta marketin digitaleko agentziakoa; Mihaela Pop, Hondarribiko Mika Jatetxekoa; Nuria Veiga Sistiaga, On Bizi bizikletak konpontzeko dorreen enpresakoa; Mainer Camarero, Luma Suite artisautza teknologikoko musika-kutxatilik egiten dituen enpresakoa; Maite eta Itziar Rodríguez, Irungo Ttipi Store dendakoak eta Janire Amador, Aló Idazkaritza Birtualekoa.

Sei bideoak sare sozialetan eta Bidasoa bizirik-eko web orrian (www.bidasoa-activa.com) zabalduko dira eta formatu bera dute. Haietan, ekintzaile bakoitzak azaltzen du zertan datzan bere proiektua, zergatik erabaki duen ekitea, garatzeko laguntzarik jaso duen, emakume izateagatik ekitea desberdina dela uste duen ala ez eta, azkenik, aholkuak ematen dizkiete ekiten hasten ari diren emakumeei.

Mainer Camarero prentsaurrekoan parte hartu du, eta hauxe nabarmendu du: “oso ekimen interesgarria iruditzen zait, uste baitut oso beharrezkoa dela gai hau ikusarazten hastea. Eta uste dut proiektu honek antzeko beste batzuk sor ditzakeela”. Emakume ekintzaile gisa duen esperientziari dagokionez, honako hau nabarmendu du: “industriaren eta artisautzaren munduan mugitu naiz. Lehenengoan gizon asko daude eta bigarrenean emakume asko, behintzat hori izan da nire esperientzia pertsonala. Baina orain krisi honek guztiak elkartu gaitu; beraz, orain pentsatu beharko genuke nola aterako garen denok elkarrekin. Azkenik, ekiteko asmoa duten emakumeei esango nieke zailtasunak zailtasun, beren buruan sinesten ikas dezatela. Mota guztietako zailtasunak egongo direlako, baina egin eta saia daitezten. Eta gaizki ateratzen bada, ez da ezer gertatzen, berriro hasiko dira”.

Ildo beretik, Janire Amadorrek hau nabarmendu du: “oso positiboki baloratzen dugu ekimena; izan ere, bideo honek emakumeen ekimena nabarmentzen laguntzeaz gain, gure zerbitzua ezagutarazten ere laguntzen du. Beraz, gure zerbitzua sustatzeko ere balio dezake”.

Berdintasun Batzordearen beste ekintza batzuk

Berdintasun Batzordeak urtero ekintza plan bat onartzen du. 2021. urteko planetik, azpimarratzekoa da 'Sexu-jazarpenaren eta sexuagatikoaren aurkako protokoloa' egin izana eta, horren ondorioz, Aholkularitza konfidentziala sortu izana. 'Berdintasunezko Komunikaziorako Gida', '2021erako berdintasun arloko prestakuntza plana', 'Kontratazio publikoan berdintasun klausulak sartzeko gida' eta 'Hautaketa eta sustapen eskuliburua' ere prestatu ziren.

Aurten egin beharreko beste ekintzei dagokienez, Bidasoa bizirik-ek Berdintasun Planean onartutako ildoetan lanean jarraituko du, besteak beste, zuzendaritza eta kudeaketa estrategikoa bultzatzea; barne-prestakuntzako eta pertsonen kudeaketako prozesuak; bizitza pertsonala, familia eta profesionala bateratzea; komunikazio inklusiboa; lan-osasuna eta ingurunearekiko harremana.

Gainera, 2022rako helburuetako bat 'Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea' aitortpena lortzea da, Eusko Jaurlaritzak Emakunderen bidez ematen duena.